

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

41/2012 FORU DEKRETUA, irailaren 25ekoa, interes orokorreko xedearen esparruan lehentasunezko mezenasgo jarduerak ezartzen dituen 2012. urterako.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzkoak, mezenasgoari aplikagarri zaizkion zerga pizgarriak arautzen ditu III. tituluan.

Zehazki, titulu horretako IV. kapituluak jasotzen du zein zerga onura aplikatzen zaizkien lehentasuna aitortua duten jardueri eta aparteko interes publikoa duten gertakarietan laguntzeko progamei.

Lehentasunezko mezenasgo jardueri dagokienez, aipatutako foru arauaren 29. artikulua dio Gipuzkoako Foru Aldundiak interes orokorreko xedearen esparruan lehentasunezkoztat jotzen diren mezenasgo jardueren zerrenda bat egin ahal izango duela ekitaldi bakoitzerako, entitate onuradunak zein diren eta jarduera horiek zer baldintza eta beharkizun bete behar dituzten ere zehaztuta: Hori guztia artikulua horretan aurreikusita dauden zerga onurak aplikatze aldera.

Bada, hau da foru dekretu honen xedea: Zerrendatzea zein jarduera jotzen diren lehentasunezkoztat 2012. urterako; eta, halaber, adieraztea zein entitate onuradunegi egin behar zaizkien ekarpenak, hala badagokie, eta nolako baldintza eta beharkizun bete beharko diren jarduera horien garapenean.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaiatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT*1. artikulua. Xedea.*

Foru dekretu honen helburua da interes orokorreko xedearen esparruan lehentasunezkoztat jotzen diren mezenasgo jarduerak ezartzea 2012. urterako; eta, orobat, adieraztea zein entitate izango diren onuradunak eta zein baldintza eta beharkizun bete behar dituzten jarduera horiek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarri buruzkoak, 29. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. artikulua. Lehentasunezko jarduerak gizarte politiken esparruan.

1. 2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehentasunezkoak gizarte politiken esparruan:

- a) Adineko pertsonentzat eta pertsona desgaituentzat egoitza eta eguneko zentro berriak sortzea.
- b) Adinekoentzako egoitzetan unitate psikogeriatrikoak sortzea.
- c) Gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden pertsonentzat arreta zentro berriak sortzea edo daudenetan plaza kopurua handitzea.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 41/2012, de 25 de setiembre, por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para el año 2012 en el ámbito de los fines de interés general.

La Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, recoge en su título III los incentivos fiscales aplicables al mecenazgo.

Concretamente el capítulo IV de dicho título determina los beneficios fiscales aplicables a las actividades declaradas prioritarias y a los programas de apoyo a acontecimientos de excepcional interés público.

En relación con las actividades prioritarias de mecenazgo, el artículo 29 de la citada norma foral establece que la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá establecer para cada ejercicio una relación de actividades prioritarias de mecenazgo en el ámbito de los fines de interés general, así como las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir, a los efectos de la aplicación de los beneficios fiscales previstos en el citado artículo.

Pues bien, el presente decreto foral no tiene otro objeto que el de relacionar las actividades que para el año 2012 se declaran prioritarias, determinando al mismo tiempo las entidades beneficiarias a las que se deben dirigir las aportaciones, en su caso, y los requisitos y condiciones que se deben cumplir en el desarrollo de las referidas actividades.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en su sesión del día de hoy,

DISPONGO*Artículo 1. Objeto.*

El presente decreto foral tiene por objeto declarar las actividades prioritarias de mecenazgo para el año 2012 en el ámbito de los fines de interés general, así como la determinación de las entidades beneficiarias y los requisitos y condiciones que dichas actividades deben cumplir a los efectos de lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Artículo 2. Actividades prioritarias en el ámbito de las políticas sociales.

1. En el ámbito de las políticas sociales, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

- a) Creación de nuevos centros residenciales y de atención diurna para personas mayores y personas con discapacidad.
- b) Creación de unidades psicogerítricas en centros residenciales para personas mayores.
- c) Creación de nuevos centros o ampliación de plazas en los existentes para la atención a personas en riesgo de exclusión social.

d) Zentroak osasun eta segurtasun alorreko gaurko arauetara egokitzeko lanak, zentro horiek indarrean dagoen araudira egokitzeko prozesu orokorraren barruan.

e) Herri onurakotzat aitortutako entitate sozialei emandako diru kopuruak, gizarte zerbitzuen alorreko programak eta jarduerak egiten dituztenean.

2. Aurreko apartatuan adierazitako jarduerak edo proiektuak, bat zein batzuk, egiten dituzten entitate guztiak izan daitezke onuradunak, betiere irabazi asmorik gabe jarduten badute finantzazio propioa nahiz hirugarrenek xede horietarako egindako ekarpenak erabilia.

3. Foru dekretu honen 10. artikuluan aipatzen den eskarraz gainera, aurreko 1. apartatuan adierazitako jarduerak edo proiektuak, bat zein batzuk, egiten dituzten pertsona edo entitateek informazio hau erantsi behar dute:

a) Esku-hartze arkitektonikoaren proiektua eta ekipamendua hornitzekoa.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak alde emandako txostena eta, hala badagokio, haren baimena.

Aurreko bi letretan aipatu den dokumentazioa beste arrazoi batzuegatik aurkeztu bazaio lehenagotik Gizarte Politikako Departamentuari, ez da zertan aurkezturik izango.

3. artikulua. Lehenetsuneko jarduerak kirolaren esparruan.

2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehenetsunekoak kirolaren esparruan:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011/2012 eta 2012/2013 ikasturteetarako onartzen dituen eskola kiroleko jarduerak programetan ezarritako baldintzak eta beharrezkoak betetzen dituzten kirol jarduerak.

b) Gipuzkoako kirol elkarte, selekzio eta kirolariak kirol txapelketa ofizialetan parte hartzea, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a') Errendimenduko kirol txapelketa ofiziala izatea eta izatera profesionalik ez edukitzea. Ondorio horietarako, gizonen futboleko lehen eta bigarren A mailak kirol txapelketa profesionaltzat hartzen dira.

b') Parte hartzea estatuko bi kategoriatan gorenetakoa batean, Europa edo mundu mailako txapelketa batean, edo nazioarteko kirol topaketetan. Taldekako zenbait kirol modalitateetan, hirugarren kategoriatan aintzat hartuko da lehiaketaren lurralde eremua autonomia erkidegoak gaindikoa denean.

c') Parte hartzeak presentzia izatea autonomia erkidegoko edo estatuko hedabideetan.

d') Txapelketa garrantzitsua izatea kirol edo gizarte mailan.

Mendiko kirol modalitatean, lehenetsunekoak izango dira zortzi mila metrotik gorako gailurrak igotzea eta goi mailako eskaladak egitea.

Bertako kirol modalitateak direnean —tosta finkoko arraunketa, pilota, boloak eta toka eta herri kirolak-, lehiaketaren lurralde eremua kasuan kasuko ezaugarrien arabera erabakiko da.

d) Obras de adecuación de los centros a las normas vigentes en materia sanitaria y de seguridad, dentro del proceso general de adaptación de los mismos a la normativa en vigor.

e) Cantidades entregadas a entidades de carácter social declaradas de utilidad pública y que realicen programas y actividades en el área de los servicios sociales.

2. Podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o proyectos indicados en el apartado anterior, sin ánimo de lucro, bien a través de financiación propia bien mediante aportaciones realizadas por terceros para los fines indicados.

3. Además de la solicitud a que se alude en el artículo 10 del presente decreto foral, las personas o entidades que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o proyectos indicados en el apartado 1 anterior deberán adjuntar la siguiente información:

a) Proyecto de intervención arquitectónica y de dotación de equipamiento.

b) Informe favorable y, en su caso, autorización del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cuando la documentación referida en las dos letras inmediatamente anteriores se hubiera presentado con anterioridad y por motivos distintos en el Departamento de Política Social, no será necesario presentarla.

Artículo 3. Actividades prioritarias en el ámbito del deporte.

En el ámbito del deporte, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

a) Las actividades deportivas que cumplan las condiciones y requisitos establecidos en los programas de actividades de deporte escolar de los cursos 2011/2012 y 2012/2013 que apruebe la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) La participación de los clubes deportivos, selecciones y deportistas guipuzcoanos en las competiciones deportivas oficiales, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

a') Que se trate de una competición deportiva oficial de rendimiento y de carácter no profesional. A estos efectos, se consideran competiciones deportivas profesionales la primera y la segunda división A del fútbol masculino.

b') Que la participación sea en una de las dos máximas categorías de ámbito estatal, en una competición de ámbito europeo o mundial o en encuentros deportivos internacionales. En determinadas modalidades deportivas colectivas podrá tomarse en consideración la tercera categoría cuando su ámbito territorial de competición sea supraautonómico.

c') Que la participación tenga presencia en los medios de comunicación autonómicos o estatales.

d') Que la competición cuente con la suficiente relevancia social o deportiva.

En la modalidad deportiva de montaña, tendrán la consideración de prioritarios los ascensos a cumbres de más de ocho mil metros y las escaladas de alto nivel.

En las disciplinas deportivas autóctonas —remo banco fijo, pelota, bolos y toka y juegos y deportes vascos—, el ámbito territorial de competición a tener en cuenta se determinará en función de las peculiaridades de cada una de ellas.

- c) Honako baldintzak betetzen dituzten kirol jarduerak:
- a') Nazioarteko parte hartze esanguratsua izatea, bai kuantitatiboki bai kuantitatiboki. Baldintza hori ez da kontuan hartuko bertako kirol modalitateak direnean edo jardueren helburu nagusia kirol errekreazioa denean, baldin eta, azkeneko kasu horretan, mila kirolarik baino gehiagok parte hartzen badute.
- b') Jarduerak, zati batean behintzat, Gipuzkoan egitea.
- c') Autonomia erkidegoko edo estatuko hedabide sozialean presentzia izatea.
- d') Garrantzitsua izatea kirol edo gizarte mailan.
- d) Kirolgi Fundazioak errendimendu kirola Gipuzkoan mantendu, sustatu eta antolatzeke egiten dituen programak eta jarduerak.
- e) Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteko jarduerak, baldin eta haren plan estrategikoan sartuta badaude, Gipuzkoako federazio sistema osoari onura badakarkio, eta Kirol Zuzendaritza Nagusiaren adostasuna badute.
- f) Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak eta «Hegalak Zabalik Fundazioak» antolatutako jarduerak, pertsona desgaituek kirola egitea bultzatzeko direnean.
- g) «Real Sociedad Fundazioak» garatzen dituen jarduerak eta programak.

4. artikulua. Lehenetsuneko jarduerak kulturaren esparruan.

1. 2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehentasunekoak kulturaren esparruan:

- a) Euskal artista profesional garaikideen erakusketen produkzioak arte galerietan.
- b) Kultur ondasun kalifikatuak eta inbentariatuak artatu edo balioan jartzeko egiten diren jarduketak. Kasu horietako bakoitzean, ondasunak Eusko Jaurlaritzak babestuta egon behar du dagokion dekretua dela medio, eta babes maila ondasun kalifikatuarena edo inbentariatuarena izan. Kasu horretan, egitekoa den jarduerak bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzaren dekretuan ezartzen den babes araubidearekin. Gainera, jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreren aurrekontua aurkeztu behar dira.
- c) Nazioarte mailako kultur programak egitea. Halakotzat hartuko dira nazioarte mailako aitortza lortu duten sortzaile lokalen obrak ezagutarazteko egiten direnak, espainiar estatutik kanpo jarduten duten kultur erakundeek egiten dituztenak, edo hainbat herrialdeetako artistek parte hartuta antolatzen direnak. Jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreren aurrekontua aurkeztu behar dira.
- d) Gipuzkoako Foru Aldundiak partaidetuta dauden edo harekin hitzarmena indarrean duten entitateen kultur programak egitea. Entitateak partaidetuak direla ulertzen da erabaki organoetan Gipuzkoako Foru Aldundiak ordezkari bat duenean. Eskareri jarduketa proiektua eta inbertsio, gastu eta sarreren aurrekontua erantsi behar zaizkio.
- e) Argitalpen industriarako nahiz industria fonografiko, ikus-entzunezko, multimedia eta eszenikoetarako (antzerki, dantza, musika) Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten diren ekoizpenak. Ekoizpen horiek sustatzen dituzten entitateek jar-

c) Los acontecimientos deportivos que cumplan las siguientes condiciones:

- a') Tener, cualitativa o cuantitativamente, una significativa participación internacional. Este requisito no será tenido en cuenta cuando se trate de modalidades deportivas autóctonas o en aquellos acontecimientos cuyo objetivo principal sea la recreación deportiva, siempre que, en este último caso, reúnan una participación superior a mil deportistas.
- b') Que tengan lugar en Gipuzkoa, al menos parcialmente.
- c') Tener presencia en los medios de comunicación social de ámbito autonómico o estatal.
- d') Contar con la suficiente relevancia social o deportiva.
- d) Los programas y actividades de la Fundación Kirolgi para el sostenimiento, la promoción y la ordenación del deporte de rendimiento en Gipuzkoa.
- e) Las actividades de la Asociación de Federaciones Deportivas Guipuzcoanas, siempre que estén incluidas en su plan estratégico, redunden en beneficio de todo el sistema federativo guipuzcoano y cuenten con la conformidad de la Dirección General de Deporte.
- f) Las actividades de la Federación Guipuzcoana de Deporte adaptado y de «Hegalak Zabalik Fundazioa» que promuevan la práctica deportiva por parte de las personas discapacitadas.
- g) Las actividades y programas desarrollados por la «Real Sociedad Fundazioa».

Artículo 4. Actividades prioritarias en el ámbito de la cultura.

1. En el ámbito de la cultura, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

- a) Las producciones en galerías de arte de exposiciones de artistas profesionales contemporáneos vascos.
- b) Las actuaciones en bienes culturales calificados y en los inventariados para su conservación o puesta en valor. En cada caso, el bien debe estar protegido por el Gobierno Vasco, a través del correspondiente decreto con el nivel de protección de bien calificado o inventariado. En este caso, la actividad a realizar deberá ser acorde con el régimen de protección establecido en el referido decreto del Gobierno Vasco. Además, se acompañará el proyecto de actuación y un presupuesto de inversiones, ingresos y gastos.
- c) La realización de proyectos culturales de carácter internacional. Tendrán tal consideración aquellos que tengan por objeto la difusión de las obras de creadores locales que han alcanzado reconocimiento internacional, los realizados por instituciones culturales que actúan fuera del Estado español o aquellos otros en los que participan artistas de diferentes países. Hay que adjuntar proyecto de actuación y un presupuesto de inversiones, ingresos y gastos.
- d) La realización de programas culturales de entidades participadas por la Diputación Foral por Gipuzkoa o que tengan convenio en vigor con la misma. Se entiende por entidades participadas aquellas en las que la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene un representante en sus órganos decisorios. Deberá acompañarse con la solicitud el proyecto de actuación y un presupuesto de inversiones, ingresos y gastos.
- e) Las producciones de contenidos destinadas a industrias editoriales, fonográficas, audiovisuales, multimedia y escénicas (teatro, danza, música) del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Las entidades promotoras dedicadas a las citadas producciones

duera horietan arituak izan behar dute azken hiru urteetan, modu enpresarial eta jarraituan. Proposatzen den produkzioaren proiektu edo programa aurkeztu behar da, eta inbertsio, gastu eta sarreren aurrekontua erantsi.

Argitalpen industria da batez ere liburuak argitaratzeagatik fakturatzen duena. Industria fonografikoak batez ere diskoak editatzeagatik fakturatzen du. Ikus-entzunezko industriak telebista eta zinerako edukiak ekoizten ditu. Multimedia industriak testu, irudi eta soinua biltzen dituzten edukiak ekoizten ditu. Eta antzerki enpresak testu dramatikoak ekoiztu eta antzetzten ditu.

f) Gipuzkoako museo eta artxiboetan inbertitzea edo jarduketak egitea, horietan bilduma propioa dagoenean eta beren kudeaketarako instalazio eta langile egokiak eta kualifikatuak dituztenean. Inbertsio proiektu bat edo jarduera programa bat aurkeztu behar da, gastu eta sarreren aurrekontua ere erantsita; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak aldeko txostena eman behar du.

g) Gipuzkoako kultur ekipamenduetan inbertitzea eta eskal kultura tradizionalarekin lotutako jarduerak aurrera eramateko ekarpenak egitea. Inbertsio proiektu bat edo jarduera programa bat aurkeztu behar da, gastu eta sarreren aurrekontua ere erantsita, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak aldeko txostena eman behar du.

h) Donostia-San Sebastian 2016 Fundazioaren jarduerak.

2. Aurreko apartatuko a)tik g)ra arteko letretan adierazitako jarduera edo proiektuei dagokienez, entitate onuradunak izan daitezke jarduera horietako bat zein batzuk irabazi asmorik gabe eta finantzazio propioa nahiz hirugarrenek xede horietarako egindako ekarpenak erabilia egiten dituzten guztiak.

5. artikulua. Lehenetsuneko jarduerak euskararen esparruan.

1. 2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehenetsunekoak euskararen esparruan:

- a) Euskarazko aldizkako argitalpenak.
- b) Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak.
- c) Euskarazko ikus-entzunezko proiektuak.
- d) Euskaraz garatutako haur eta gazteen aisialdirako produktuak ekoiztu eta hedatzeko proiektuak.
- e) Euskarazko liburuak hedatu, merkaturatu eta banatzeko ekintzak.
- f) Euskararen erabilera soziala normalizatzeko udal planak.
- g) Alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko planak eta ikerketa proiektuak.
- h) Gipuzkoan euskaraz emititzen duten toki telebistak.
- i) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak.

2. Aurreko apartatuan adierazitako jarduera edo proiektuetako bat zein batzuk egiten dituzten guztiak izan daitezke entitate onuradunak, betiere baldin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak 2012an kudeatutako programen konturako diru laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen badituzte.

deberán dedicarse a las actividades de forma empresarial y continuada en los últimos tres años. Deberá adjuntarse un proyecto o programa de la producción propuesta con un presupuesto de inversiones, gastos e ingresos.

Se entiende por industria editorial aquélla que facture fundamentalmente por la publicación de libros. Por industria fonográfica la que facture fundamentalmente por la edición de discos. Por industria audiovisual la que produce contenidos para televisión y cine. Por industria multimedia la que produce contenidos que incluyen texto, imagen y sonido. Y por empresa teatral la que produce y representa textos dramáticos.

f) Las inversiones o la realización de actividades en museos y archivos de Gipuzkoa que dispongan de colección propia, instalaciones y personal cualificado suficiente para su gestión. Deberá presentarse un proyecto de inversiones o programa de actividades, con un presupuesto de gastos e ingresos, así como disponer del informe favorable del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

g) Las inversiones en equipamientos culturales y aportaciones a la realización de actividades relacionadas con la cultura tradicional vasca. Deberá presentarse un proyecto de inversiones o programa de actividades, con un presupuesto de gastos e ingresos, así como disponer del informe favorable del Departamento de Cultura, Juventud y Deporte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

h) Las actividades de la Fundación Donostia-San Sebastián 2016.

2. Con respecto a las actividades o programas incluidos en las letras a) a g) del apartado anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas que realicen o desarrollen alguna o algunas de las citadas actividades, sin ánimo de lucro, bien a través de financiación propia bien mediante aportaciones realizadas por terceros para los fines indicados.

Artículo 5. Actividades prioritarias en el ámbito del euskera.

1. En el ámbito del euskera, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

- a) Publicaciones periódicas en lengua vasca.
- b) Proyectos y actividades de promoción del euskera.
- c) Proyectos audiovisuales en lengua vasca.
- d) Proyectos de producción y difusión de elementos de ocio infantil y juvenil en lengua vasca.
- e) Acciones de difusión, comercialización y distribución de libros en lengua vasca.
- f) Planes municipales de normalización del uso social del euskera.
- g) Planes e investigaciones aplicadas de promoción del uso del euskera en el ámbito socioeconómico.
- h) Televisión locales en Gipuzkoa que emitan en lengua vasca.
- i) Proyectos de difusión de contenidos en lengua vasca mediante tecnologías de la información y de la comunicación.

2. Podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o proyectos indicados en el apartado anterior, y que cumplan los requisitos para ser beneficiarias de las subvenciones con cargo a los programas gestionados por la Dirección General de Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa durante el año 2012.

3. Foru dekretu honen 10. artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, jarduera edo proiektuaren sarreraren edo gastuen aurrekontua aurkeztu behar da, bai eta inbertsioen aurrekontua ere.

6. artikulua. Lehenetsunezko jarduerak berrikuntzako eta jakintzaren gizarteko politiken esparruan.

1. 2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehenetsunezkoak berrikuntzako eta jakintzaren gizarteko politiken esparruan:

a) Ikerketa arlo hauek garatzen edo ahalbidetzen dituztenak: Nanozientziak, nanoteknologiak, mikroteknologiak, genomika eta proteomika, bioteknologia, neurozientziak, arlo biosanitarioa, energia berriztagarriak eta erregai-pilak

b) Basque Culinary Center Fundazioa.

2. Aurreko apartatuko a) letran adierazitako jardueri dagokienez, aurreko apartatuko jardueraren bat edo batzuk beren helburuen artean dituzten entitate guztiak izan daitezke onuradunak. Nahitaezkoa da jarduera horiek Gipuzkoan egitea, eta entitateak lurralde horretan kokatuta egotea.

Zehazki, entitateek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteak izan behar dute. Ospitaleek egindako ikerkuntza jarduerak ere barruan sartu daitezke, haien helburua 1. apartatuan jasotakoaren artean badago.

Esparru honen barruan sartuko dira ikerkuntza lerro eta proiektuak, eta azpiegitura eta ekipamendu berrietan egindako inbertsioak.

Entitate onuradunei ekarpenak egiteko baldintza gisa ezarzen da urteanitzeko hitzarmen bat izenpetu behar dela proiektua garatzeko, eta hitzarmen horretan zehaztu behar da zer jardueratarako erabiliko diren ematen diren funtsak.

7. artikulua. Lehenetsunezko jarduerak landa ingurunea garatzeko eta ingurumena babesteko politiken esparruan.

1. 2012. urterako, honako jarduerak izango dira lehenetsunezkoak landa ingurunea garatzeko eta ingurumena babesteko politiken esparruan:

a) Aralar, Pagoeta, Aiako Harria eta Aizkorri-Aratz parke naturalerako harrera eta interpretazio zentroetan jendaurreko arretarako jarduerak eta programak egitea.

b) Natura gune babestuetan baso autoktonoa landaretza potentzialaren berezko espeziekin berreskuratzeko jarduerak eta programak.

c) Nekazaritza ekologikoaren alorreko prestakuntza eta aholkularitza jarduerak eta programak.

d) Bertako animalien arrazak kontserbatzeko jarduerak.

e) Bertako landare espezieen eta bariatateen haziak kontserbatzeko jarduerak.

f) Arteaga Fundazioa.

2. Aurreko apartatuko a)tik e)ra arteko letretan adierazitako jarduera eta programei dagokienez, entitate onuradunak izan daitezke aurreko apartatuko jarduera horietakoren bat zein batzuk irabazi asmorik gabe eta finantzazio propioa nahiz hiru-garrenek xede horietarako egindako ekarpenak erabilita egiten dituzten guztiak. b)tik e)ra arteko letretan adierazitako jardueren kasuan, nahitaezkoa da jarduera horiek Gipuzkoan egitea eta aritzen diren entitateak bertan kokatuta egotea.

3. Junto con la solicitud a la que se alude en el artículo 10 del presente decreto foral, deberá presentarse un presupuesto de ingresos y gastos de la actividad o proyecto a desarrollar, así como, en su caso, un presupuesto de inversiones.

Artículo 6. Actividades prioritarias en el ámbito de la innovación y la sociedad del conocimiento.

1. En el ámbito de la innovación y la sociedad del conocimiento, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

a) Las que desarrollen o posibiliten la investigación relacionada con las nanociencias, nanotecnologías, microtecnologías, genómica y proteómica, biotecnología, neurociencias, biosanitaria, energías renovables y pilas de combustible.

b) Basque Culinary Center Fundazioa.

2. Con relación a las actividades de la letra a) del apartado anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas entidades que incluyan entre sus finalidades alguna o algunas de las actividades indicadas en el apartado anterior, debiendo desarrollarse en Gipuzkoa y por entidades localizadas en dicho territorio.

En particular, las entidades deberán estar acreditadas como agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. También podrán incluirse las actividades de investigación realizadas por hospitales, siempre que tengan como finalidad alguna de las incluidas en el apartado 1.

En este ámbito se incluirán las líneas y proyectos de investigación, y la inversión en nuevas infraestructuras y equipamientos.

Las aportaciones que se realicen a las entidades beneficiarias deberán estar ligadas a la firma de un convenio plurianual de desarrollo del proyecto, en el que se especifiquen las actividades a que se destinan los fondos aportados.

Artículo 7. Actividades prioritarias en el ámbito de las políticas de desarrollo del medio rural y de protección del medio ambiente.

1. En el ámbito de las políticas de desarrollo del medio rural y de protección del medio ambiente, para el año 2012, se declaran como prioritarias las siguientes actividades:

a) Las actividades y programas de atención al público en los centros de acogida e interpretación de los parques naturales de Aralar, Pagoeta, Aiako Harria y Aizkorri-Aratz.

b) Las actividades y programas de recuperación del bosque autóctono en los espacios naturales protegidos mediante repoblación forestal con especies características de la vegetación potencial.

c) Actividades y programas de formación y asesoramiento en materia de agricultura ecológica.

d) Actividades dirigidas a la conservación de razas locales de animales.

e) Actividades dirigidas a la conservación de semillas de especies y variedades locales de vegetales.

f) Fundación Arteaga.

2. Con respecto a las actividades y programas incluidos en las letras a) a e) del apartado anterior, podrán ser entidades beneficiarias todas aquellas que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades indicadas en el apartado anterior, sin ánimo de lucro, bien a través de financiación propia bien mediante aportaciones realizadas por terceros para los fines indicados. En el caso de las actividades a las que se refieren las letras b) a e), deberán desarrollarse en Gipuzkoa y por entidades localizadas en dicho territorio.

Foru dekretu honen 10. artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, jarduera edo proiektuaren sarreraren edo gastuen aurrekontua aurkeztu behar da; bai eta inbertsioen aurrekontua ere, hala badagokio.

8. artikulua. Lehenatasunezko jarduerak suteen aurkako esparruan.

Suteen aurkako esparruan, Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioak garatutako jarduerak eta programak jotzen dira lehenatasunezkatzat 2012. urterako.

9. artikulua. Doako zerbitzu prestazioei onurarik ez aplikatzea.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 29. artikuluan ezartzen dituen zerga onurak ez dira aplikagarriak izango Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek aurreko 2.etik 8.era bitarteko artikuluetan adierazitako esparruetako edozeinetan doan egin dituzten zerbitzu prestazioetan.

10. artikulua. Lehenatasunezko jarduera izendatzeko eskaera.

Foru dekretu honen 2. artikuluan, 3. artikuluko a)tik c)ra arteko letretan, 4. artikuluko a)tik g)ra arteko letretan, 5. artikuluan, 6. artikuluko a) letretan, eta 7. artikuluko a)tik e)ra arteko letretan adierazitako jarduera edo programetako bat edo batzuk egiten dituzten pertsona edo entitateek jarduera lehenatasunezkoen artean sartzeko eskaera aurkeztu behar dute, idatziz, 2012. urtea amaitu baino lehen, berariaz hala izenda dadin; eskaera hori jarduketa eremuaren arabera Gipuzkoako Foru Aldundian eskudun den departamentuari aurkeztuko zaio.

11. artikulua. Elkarrekikotasuna jarduerak izendatzean.

Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 31. artikuluan xedatzen duenez, foru arau horren 29. artikuluan aurreikusten diren zerga onurak estatuko eta beste foru lurraldeetako organo eskudunek lehenatasunezkatzat jotzen dituzten jarduerari eta programei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta, haiek onartua duten araudian beste hainbeste egiten bada Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako jarduera eta programekin.

Xedapen gehigarriak.

Lehena. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, eta, orobat, azaroaren 2ko 87/2004 Foru Dekretuak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onartzen duenak, hurrenez hurren 29.4 eta 8. artikuluetan aipatzen duten ziurtagiriak onura fiskala aplikatua duen zergaren aitortpena Ogasun eta Finantza Departamentuan jasotzen duen kudeaketa organoaren bisatua beharko du.

Bigarrena. Gaian eskumena duen departamentuak, lehen aipatutako 29.4 artikulua dioenaren arabera, zerrendaturik bidaltzen badio Ogasun eta Finantza Departamentuari zer jarduera jotzen diren lehenatasunezkatzat ekitaldi bakoitzerako, zein diren ekarpen egileak eta baldintzak betetzen dituzten jardueretarako zer kopuru eman diren, ez da beharrezkoa izango ziurtagiria bisatzea.

Junto con la solicitud a la que se alude en el artículo 10 del presente decreto foral, deberá presentarse un presupuesto de ingresos y gastos de la actividad o proyecto a desarrollar, así como, en su caso, un presupuesto de inversiones.

Artículo 8. Actividades prioritarias en el ámbito de la prevención de incendios.

En el ámbito de la prevención de incendios, para el año 2012, se declaran prioritarias las actividades y programas desarrollados por Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa.

Artículo 9. Inaplicación de beneficios a las prestaciones de servicios gratuitas.

No les serán aplicables los beneficios fiscales establecidos en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, a las prestaciones de servicios gratuitas realizadas por los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de no Residentes en cualesquiera de los ámbitos señalados en los artículos 2 a 8 anteriores.

Artículo 10. Solicitud de declaración de actividad prioritaria.

Todas aquellas personas o entidades que realicen o desarrollen alguna o algunas de las actividades o programas indicados en el artículo 2, en las letras a) a c) del artículo 3, en las letras a) a g) del artículo 4, en el artículo 5, en la letra a) del artículo 6 y en las letras a) a e) del artículo 7 del presente decreto foral, deberán presentar, antes de finalizar el año 2012, una solicitud escrita de inclusión de la actividad como prioritaria, a los efectos de su declaración expresa; solicitud que será presentada al departamento competente de la Diputación Foral de Gipuzkoa en razón del ámbito de actuación.

Artículo 11. Reciprocidad de declaración de actividades.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, los beneficios fiscales reconocidos en el artículo 29 de la referida norma foral, serán de aplicación a aquellas actividades y programas prioritarios que así sean declarados por los órganos competentes del Estado y de los Territorios Forales, siempre que, en la normativa aprobada por los mismos, se reconozcan de forma recíproca las actividades y programas aprobados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Disposiciones adicionales.

Primera. La certificación a la que hacen referencia el apartado 4 del artículo 29 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, así como el artículo 8 del Decreto Foral 87/2004, de 2 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la aplicación del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos al mecenazgo, deberá incluir el visado del órgano de gestión del Departamento de Hacienda y Finanzas ante el que se presente la declaración del Impuesto en que se aplique el beneficio fiscal correspondiente.

Segunda. Cuando el departamento competente por razón de la materia al que se refiere el artículo 29.4 antes citado, remita al Departamento de Hacienda y Finanzas un listado de las actividades prioritarias declaradas para cada ejercicio, sujetos aportantes y cantidades aportadas a dichas actividades que hayan cumplido con el condicionado de las mismas, no será necesario el requisito del visado de la certificación.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2012ko urtarriaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2012ko irailaren 25a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martin Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(1974)

(8997)

Disposición final.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y producirá efectos desde el 1 de enero de 2012.

San Sebastián, a 25 de setiembre de 2012.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martin Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Helena Franco Ibarzabal.

(1974)

(8997)